


Eusko Jaurlaritzaren Berrikuntza Publikoaren Plana

2011-2013





Aurkibidea

1.	Sarrera	9
1.1.	<i>Berrikuntza Publikoaren Planaren arrazoiak eta aukerak.....</i>	9
1.2.	<i>Dokumentuaren egitura.....</i>	13
2.	Abiapuntua.....	17
2.1.	<i>Aurrekariak.....</i>	17
2.2.	<i>Abiapuntuko egoeraren diagnostika</i>	18
2.3.	<i>Ikasitako irakaspenak</i>	20
2.4.	<i>Berrikuntza Publikoaren Plana egungo testuinguruan.....</i>	23
2.5.	<i>Berrikuntza Publikoaren Planaren eragin-esparrua</i>	28
3.	Adierazpen estrategikoa.....	35
3.1.	<i>Planaren misioa eta ikuspegia.....</i>	35
3.2.	<i>Helburu estrategikoak.....</i>	37
3.3.	<i>Ardatz estrategikoak.....</i>	44
3.4.	<i>Ilido estrategikoak</i>	45
4.	Plan operatiboa	55
4.1.	<i>Ilido estrategikoen garapena.....</i>	56
4.2.	<i>Zabalpenerako plan operatiboa</i>	88
4.3.	<i>Laburpen ekonomikoa.....</i>	99
5.	Aldaketaren Kudeaketa Plana	103
5.1.	<i>Aldaketaren kudeaketaren ikuspegia eta ikuspuntua.....</i>	103
5.2.	<i>Aldaketaren Kudeaketa Plana</i>	105
6.	Kudeaketa-eredua	123
6.1.	<i>Kudeaketa-ereduaren printzipioak.....</i>	123
6.2.	<i>Antolaketa-eredua</i>	124
6.3.	<i>Elkarreragin eta parte-hartze eredua.....</i>	128
6.4.	<i>Berrikuntza Publikoaren Plana eguneratzea.....</i>	128
6.5.	<i>Aginte-koadroa</i>	130

{3



4}



BERRIKUNTZA PUBLIKOAREN PLANA aurkezten dugu, Eusko Jaurlaritzaren plan estrategikoa, administrazio publikoan aldaketa sakona lortzeko asmoz, euskal gizarteak beharrezkoa baitu, eta eskatu egiten baitigu.

Garai zailean gobernatzea tokatu zaigu, krisi ekonomiko eta sozial sakonean. Egoera horretan, batzuek zalantzan jartzen dituzte zerbitzu publikoen bideragarritasuna eta helburua, baita gaur egun ezagutzen dugun bezalako administrazio publikoa izatea ere.

Ez naiz uste berekoa. Nik benetan sinesten dut administrazio publikoa, eta administrazioak kudeatzen dituen zerbitzuak, nahitaezkoak direla gizarte solidarioa lortzeko, denok aukera berak izateko eta ongizate maila handia lortzeko.

Baina, horretarako, modernizazio eta berrikuntza politika sakonak ezarri behar dira; izan ere, gure administrazio publikoak gizartean legitimazioa galtzeko arrazoietakoa bat da administrazioak ez dituela eskaintzen gaur eguneko gizarteak zilegitasun osoz eskatzen dituen zerbitzu eta funtzionamendu-moduak. Norabide horretan lan egin behar dugu. Eta, horrela, administrazio eragilea lortu, gizartearen beharrezkoen erantzuten diona; administrazio irekia, kudeaketa gardena daukana; administrazio parte-hartzailea erabakiak hartzerakoan; eta administrazio eraginkorra, dauzkan baliabide urriak modu eredarrian erabiltzen dituen.

{5

Herritarren eta administrazioaren arteko harreman-eredu berri batez ari gara: zerbitzua emateko eredu berria, administrazioaren bokazioa gizartearen beharrezkoen betetzea baita, antolakuntza arin, malgu eta ireki baten baitan, eta teknologia berriak erabiliz, eraginkorragoak izateko.

Berrikuntza Publikoaren Planak esaldi batean laburbiltzen du nire lanean helburu dudana: herritar arduratsuen eta zerbitzu publikoan gizartearen ongizatearen alde lan egiteaz harro dauden profesionalen arteko harreman-gune bilakatzea euskal administrazioa. Gizartearen ongizatea baita administrazio publikoaren helburua, bai eta gobernu honek egiten dituen ahaleginen helburua ere.

Amaitzeko, plan hau egiteko modua nabarmendu nahi dut. Parte-hartzea izan da ezaugarri nagusietako bat, eta gauzatzeko orduan ere horrela izango da. Langile publikoek, beste administrazio batzuetako langile eta arduradunek, merkataritza-ganberek eta, orokorrean, herritarrek gogo handiz parte hartu eta lagundu dute Jaurlaritzaren plan handienetako bat, Berrikuntza Publikoaren Plana-PIP, egiten. ESKERRIK ASKO denei.

Idoia Mendiá Cueva

Justizia eta Herri Administrazioko Sailburua



6}

Beste administrazio-eredu bat eskatzen duten beste herritar batzuk

01



Sarrera



8}



1. Sarrera

1.1. Berrikuntza Publikoaren Planaren arrazoiak eta aukerak

Administrazio publikoa funtsezkoa da gizarte aurreratu batean, eta administrazio publiko **moderno, bizkor eta eraginkorra** ezinbestekoa da ongizatearen eta bizi-kalitatearen maila handiagoak dituen gizarte bat lortzeko. Beraz, gure gizarte konplexu, aldakor eta askotarikoak une bakoitzean egiten dituen eskaerei **eraginkortasunez erantzuteko** gai den administrazio publikoa behar dugu.

Euskadik **berrikuntza funtsezko elementutzat** hartu du, bere ekonomiaren lehiakortasuna hobetzeko. Eta bertako sektore publikoak berrikuntzarekiko lidergo-funtzio eredugarria hartu behar du, besteak beste, zerbitzu publikoak hobetuz, herritarrekiko nahiz enpresekiko orientazioa izanda, eta jarduteko eraren efizientzia areagotuz.

Horri lotuta, **“berrikuntza publikoa”**ren kontzeptua garatu behar da; hain zuzen, honela ulertu behar da kontzeptu hori: kudeaketa publikoaren eremuan ideia eta jarduera berritzaileak aplikatzea, **gizarte-balioa sortzeko** asmoz.

Sektore pribatuko berrikuntzaren xedea lehiakortasuna hobetzea eta, beraz, balio ekonomikoa sortzea da; berrikuntza publikoaren xedea, berriz, **gizartearen beharrak hobeto gogobeteko dituzten politika publikoak** eta kalitate handiagoko zerbitzu publikoak lortzea da, baliabide publikoak eraginkortasunez esleituz eta erabiliz.

Helburu hori lortu nahian, Eusko Jaurlaritzak **Berrikuntza Publikoaren Plana** jarri du abian. Hain zuzen, **kudeaketa-tresna estrategikoa** bihurtuko da, euskal gizartean arlo publikoaren balioa legitimatzen lagunduko duen administrazio publikoa lortzeko bidean.

Berrikuntza Publikoaren Plana **Jaurlaritzaren estrategia orokorraren parte** da, eta Euskadi modernoa, herritar askeengan oinarritua, eraikitzen lagunduko du; herritar aske horiek elkartasunez jokatzeko dute elkarren artean, eta balioetan oinarritutako gizarte-eredu bat eraiki nahi dute, iraunkorra eta lehiakorra mundu ireki batean. Hain zuzen ere, helburu orokor hori ezarri zuen lehendakariak 2010eko urtarrilean, **“euskal herritarren arteko kontratu sozial berria”** deritzona aurkeztu zuenean.

Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek partekatutako estrategia da, Administrazio berritzailea, irekia, eraginkorra eta emaitzak lortzera bideratua bultzatzeko.



Horregatik, “**2009-2013 IX. Legegintzaldiko Gobernuaren Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegia**”n jada aipatu zen Euskadiko Administrazio publikoa modernizatu eta **XXI. mendeko administrazioa** sortzeko helburua; hots, *“honako hauek lortzen lagunduko duen administrazioa: enpresen lehiakortasunaren alde egingo duena, produkzioa eta enplegua areagotzeko; herritarren ongizatearen aldekoa, egun eta etorkizunean Euskadin bizi diren eta bizi izango diren pertsona guztien bizi-kalitatea bermatzeko; eta sistema demokratikoa indartzearen alde egingo duena”*.

Baina, horrez gain, Berrikuntza Publikoaren Plan honen bidez, beste kudeaketa-elementu batzuk sartu nahi dira, administrazio publikoaren **funtzionamendu-gastuak arrazionalizatzeko** aukera emango dutenak; izan ere, administrazio-jarduera, beti, **austeritate- eta efizientzia-printzipioetan** oinarritzen dela aintzat hartuta, egungo egoera ekonomikoan ezinbestekoa da ustiapena optimizatzea eta baliabide publikoetatik **ahalik eta balio gehien lortzea**.

Hain zuzen, funtsezko kudeaketa-elementuetako bat administrazioa osatzen duen **giza kapitala** da. Euskadiko langile publikoek prestakuntza- eta profesionaltasun-maila handia dute, bai eta **zerbitzu publikoarekiko konpromiso** argia ere. Baina administrazio moderno bateko enplegu publikoak XXI. mendeko ezaugarriak izan behar ditu: malgutasuna, prestakuntza handia teknologia berrietan, eta oro har, egungo premietara hobeto egokitutako lanbide-profila.

Horregatik, pertsonak funtsezko gai dira Berrikuntza Publikoaren Plan honetan. Alde batetik, **Plana bera pertsonengan** eta horien ezagutza **oinarritzen delako**; izen ere, horiek ditu berme nagusi antolaketan aldaketak egiteko edozein proiektu arrakasta izan dezan. Eta bestetik, **antolaketa-egiturak eta lanpostuen profilak** funtzionamendu-eredu eta harreman-bide berriek sortutako premia berrietara **egokitzea** aurreikusten duelako. Berrikuntza Publikoaren Plan honen erronka nagusietako bat, hain zuzen, **langile publikoen trebakuntza hobetzea** da, egungo euskal gizartean sortzen diren premia eta eskaera berriei behar bezala erantzun ahal izateko.

Hori guztia dela eta, hauek dira, laburbilduz, Berrikuntza Publikoaren Planaren erronka nagusiak:

- **Zerbitzu publiko elektronikoak** herritarren eta enpresen eskura jartzea, egin beharreko kudeaketa eta administrazio-izapide guztiak Internet bidez egin ditzaten.



- Herritarrak **arlo digitala erabiltzen has daitezen** sustatzea, pertsona guztiek zerbitzu publiko elektronikoak ekitatez erabili ahal izan ditzaten.
- Antolaketan aldaketak sustatzea, elkarlanean oinarritutako erakundea sortzeko eta sareko funtzionamendua sustatzeko bidean; horrela, herritarren premiak eta eskaerak eraginkortasunez gogobeteko dira.
- Administrazioan, **gobernu irekiaren** printzipioak bultzatzea: gardentasuna, parte-hartzea eta lankidetzatza.
- Aurrera egitea **administrazio berritzaile** bat lortzeko bidean, etengabe zerbitzuen kalitatea hobetuko duena eta politika publikoak sistematikoki ebaluatuko dituena, hain zuzen.
- **Informazio-sistema, zerbitzu teknologiko eta telekomunikazio-zerbitzu** moderno eta eraginkorrak izatea, erakundearen benetako premiarekin lotuta daudenak eta kalitatezko zerbitzu publikoak emateari dagokionez balioa emango dutenak.

{11

Azken batean, Berrikuntza Publikoaren Plana **estrategia partekatu** bat da, Eusko Jaurlaritzan berrikuntza, kalitatea eta efizientzia bultzatzeko.

Bestalde, plan honek **ez ditu ordezkutzen sailtako estrategiak, eta ez da haiekin bateraezina**; hau da, biak osagarriak dira. Hain zuzen, sailtako ekimenen bidez, Berrikuntza Publikoaren Planaren zenbait eremu garatu ahal izango dira, errealitate espezifikoetatik gertuen dauden ekintzen bidez.

Ere berean, Berrikuntza Publikoaren Plan honek **erreferentzia izan nahi du beste administrazio publiko batzuentzat**, eta horrez gain, lankidetzajarduerak proposatzen ditu, dituzten ezagutzak eta baliabideak elkarrekin partekatzen lagunduko dutenak.

Amaitzeko, azpimarratu behar da **Plana egiteko prozesuan** gardentasunaren, parte-hartzearen eta lankidetzaren printzipioak hartu direla oinarri. Horrenbestez, 15 lan-mahai eratu dira, eta bertan, Eusko Jaurlaritzaren sail guztiak, Euskadiko administrazio asko eta Planaren hainbat eremurekin lotutako askotariko gizarte-eragileak egon dira ordezkaturik; horrez gain, **Planak presentzia handia** izan du **Interneten**, blog baten eta gehien zabalduta dauden sare sozialen bidez (Facebook, Twitter eta LinkedIn).



*Berrikuntza
Publikoaren Plana
eredu ireki batek
bermatuta dago;
bertan, herritarrek,
enpresek, beste
administrazio
batzuek, sail guztiek
eta Eusko
Jaurlaritzako
langileek hartu dute
parte.*


Plana egiteko erabili den metodologiak berak, beraz, balio erantsia eman dio, planaren eduki zehatzez harago doana; izan ere, **lankidetza-sareak** eratu dira, indarrean jarraituko dutenak, eta **eragile askok esku hartzea** lortu da, **funtsezkoa** Planaosatzen duten **proiektuak gauzatzeko**.

Agian, hori izango da plan honen berritasun nagusia, **proiektu partekatu bihurtzeko duen asmo sendoa**, Euskadik behar duen administrazio publikoa eraiki nahi dugun pertsona guztion proiektua bihurtzeko asmoa: *"Euskadiko Administrazioa, herritar arduratsuen eta gizartearen ongizatea lortzeko lan egiteaz harro dauden zerbitzu publikoko langileen arteko harreman-espazio bat eskaintzen duena"*.

1.2. Dokumentuaren egitura

Dokumentu honetako edukia sei ataletan egituratu da:

- Lehenengo kapituluan, **sarrera** egin da, eta bertan, Berrikuntza Publikoaren Plana (BPP) bultzatu duten arrazoiak eta aukerak azaldu dira, bai eta etorkizuneko administrazioaren ezaugarri nagusiak azpimarratu ere; horrez gain, nabarmendu da plan hau Eusko Jaurlaritzaren ibilbide-orria izango dela modernizazio-prozesu honetan.
- Bigarren atala **abiapuntuaren deskribapenean** oinarritu da, eta planaren indarrak nahiz ahuleziak zein diren adierazi da, bai eta BPPk aurre egin beharreko erronkak ere.
- Hirugarren atalean, BPP oinarritzen den **adierazpen estrategikoa** garatu da, eta hori bideratuko duten misioa eta ikuspegia definitu dira; horrez gain, Planaren bidez bete nahi diren helburuak zehaztu dira.
- Laugarren atalean, **Plan operatiboari** buruzkoan, Plana osatzen duten ildo estrategikoak, horien helburuak eta horiek gauzatzen diren proiektuak garatuko dira.
- Bosgarren kapituluan, **Aldaketaren Kudeaketa Planari** buruzkoan, gauzatuko diren jarduerak definitu dira, planaren berri emateko, zabaltzeko, gai horretan trebatzeko eta, oro har, erakundea prestatzeko, BPP ezarri eta gero izango den lan egiteko modu berrirako.
- Azkenik, seigarren atalean, **Kudeaketa-ereduari** buruzkoan, ezarritako helburuen betetze maila eta hartutako neurrien eta egindako proiektuen inpaktua balioetsi dira, bai eta, malgutasun-eta egokitzapen-printzipioetan oinarrituta, Plana testuinguruaren aldaketara egokitzeko aukera ematen duten mekanismoak eta tresnak ezartzeko bitartekoak ere.



{13



Zer ikasi dugu aurreko esperientzietatik?

02



{15

Abiapuntua





2. Abiapuntua

2.1. Aurrekariak

Eusko Jaurlaritza herritarren arretaren eta zerbitzu elektronikoaren eta informazio- nahiz telekomunikazio-sistemen arloan estrategia integral bat izateko premiaren jakitun da; hori dela eta, bere antolaketa-egitura egokitu du, eskumen horiek Sailburuordetza beraren pean egon daitezen: Administrazio Publikoaren Sailburuordetzaren mende.

2010-2013 Berrikuntza Publikoaren Plan berria ekimen integratutzat eratu da; bertan, lehendik 2006-2009 Informatika eta Telekomunikazioaren Planean (ITP) nahiz 2008-2010 Administrazio eta Gobernu Elektronikoaren Bigarren Plan Estrategikoan (II. AGEPE) landu ziren eremuak nahiz egungo gobernuak abian jarritako beste batzuk (Gobernu Irekia eta Politika Publikoaren Ebaluazioa, besteak beste) hartu dira aintzat, ikuspegi integral eta komun baten pean.

Hori guztia dela eta, aurreko planak eta ekimenak txertatuz eta bateratuz, plan honen xedea da erreferente bihurtzea berrikuntza publikoaren eta administrazio elektronikoaren alorrean, honako bi gogoeta hauetan oinarrituz. Egun, administrazio publikoak ematen dituen zerbitzuak hobetzeko ekimen gehienak teknologia berrien erabilera egokian oinarritzen dira, eta, beraz, haren estrategia ezin hobeki lotu behar da administrazioa hobetzeko eta modernizatzeko estrategiarekin; kasu honetan, aurreko estrategiak plan bakarrean elkartuz lortu da hori. Bestalde, marko estrategiko korporatibo bat ezarri behar da, zehazten diren azpiegitura eta aplikazio teknologikoetarako.

*BPP estrategia berritua eta integratzailea da, modernizazio teknologikoaren eta administrazio publikoaren eraldaketaren ikuspegiak kontzeptu bakarrean biltzen dituena: **berrikuntza publikoa**.*

{17



2.2. Abiapuntuko egoeraren diagnostia

Administrazio
elektronikoari
dagokionez, Eusko
Jaurlaritzak
plataforma
teknologiko umotua
eta eraginkorra du,
funtzionaltasun
askorekin.

Zerbitzu elektronikoen
eskaintza nahiz
eskaera nabarmen
handitzea izango da
alor honetako erronka
nagusia datozen
urteetan.

Berrikuntza Publikoaren Plana egiteko lehen fasea diagnosi bat egitea izan da; horri esker, Plan berria gauzatzeko abiapuntua zein den jakin ahal izan da. Horri dagokionez, honela laburbil daitezke diagnosiaren ondorio nagusiak:

II. AGEPE eta ITP	
(+) Alderdi positiboak	(-) Alderdi negatiboak
• Presentzia-ereduari egokitutako atariak eta edukiak. • Plataforma eta izapidetze elektronikoen ereduak, umotuek eta eraginkorrak. • Fitxategi elektronikoen eraginkorra (Dokusi). • Garatutako kontratazio publikoa. • Abian jarritako ordainketa-pasabidea. • Zuzenean herritarren arretarako zerbitzu berria. • Amaitzearen dauden zerbitzuen katalogo bateratua. • Elkarreragingarritasunaren alorrean egindako aurrerapenak. • Azpiegitura eta plataforma teknologiko sendoak. • EJI Eren zerbitzuen katalogoaren onarpena. • 4 prozesuren ezarpena ITIL v2 jardunbide egokien esparruan.	• Zerbitzu elektronikoen kopuru txikia (zerbitzu guztien % 15, gutxi gorabehera). • Egoitza elektronikorik ez. • Barneko zerbitzu elektronikoen kopuru txikia. • Ez da aldaketarik egin antolaketa-profiletan edo -egituretan. • Administrazio elektronikoari buruzko informazioa ez. • Sektore-proiektuak, aurrerapen oso heterogeneoa eta kontrol nagusi txikia dutenak. • Atzerapena EIZU proiektuaren ezarpenean. • IKUS proiektuaren bilakaera teknologikoa gertatzeke dago. • Ezagutzaren kudeaketan ez da aurreratu. • IT gobernu-eredurik eta zenbait sistemaren arreta eraginkorrik ez izatearekin lotutako alderdi negatiboak daude.

**Erronkak**

- Interneten duen presentzia-eredua aldatzea, **bi noranzkoko eredua** eta **sare sozialak** ezartzeko bidean.
- **Interneteko kanala sartzea**, Zuzenean herritarren arretarako ereduari.
- Sail guztien **ahaleginak biltzea** eta azpiegitura komunak asko erabiltzea.
- Herritarrei eta enpresei **zerbitzu elektronikoen aukera zabala** ematea.
- Zerbitzu elektronikoen **eskaera bultzatzea**.
- Lan-ereduak abian jartzea, bai orain arte garatu ez diren eremuetan, bai garapen eskasa izan dutenetan: **berrikuntza, kalitatea, parte-hartzea eta ezagutzaren kudeaketa**.
- Informatikako **eskumen-esparrua argitzea**.
- Eusko Jaurlaritza osatzen duten sailek **plataforma komunak** erabiltzearen alde egitea.
- **Teknologiak gobernatzeko eredua**: Eusko Jaurlaritzaren gobernu-ereduari eta euskarri teknologikoari buruz hausnartzea, efizientziaren, epe luzerako estrategiaren eta arrazionalizazioaren irizpideen artean.
- Azpiegitura teknologikoen **arrazionaltasuna eta efizientzia** hobetzea.
- **Funtsezko sistema korporatiboen bilakaera** teknologikoa, giza baliabideena eta baliabide ekonomiko eta finantzarioena, besteak beste.

Informazio- eta komunikazio-teknologiaren gobernu-ereduaren bilakaera da BPPk IKTen alorrean aurre egin beharko dion erronka nagusietako bat, efizientziaren, arrazionalizazioaren eta Eusko Jaurlaritzako ikuspegi estrategiko bakarraren irizpideak oinarri hartuta.



2.3. Ikasitako irakaspenak

Planaren helburuak betetzeko gakoan artean, aintzat hartuko dira bertan esku hartzen duten eragile guztien konpromisoa, ekimenak bultzatzeko agertutako lidergo indartsua eta erakundearen zeharkako ikuspegia.

Horri guztiari esker, ekimenek egiaz lagunduko dute aldaketa gauzatzen barne-kudeaketako eta zerbitzu-kudeaketako eredu berri bat, eraginkorragoa eta emaitzetara bideratua, lortzeko bidean.

Egin den diagnosi-lanean, zenbait elementu identifikatu dira, Berrikuntza Publikoaren Planaren helburuak betetzeko arrazoi bat edo bestea dela eta, funtsean, kontuan hartu behar direnak. Hauek dira funtsezko elementu horiek:

- **Sailen eta esku hartzen duten eragile guztien konpromisoa.** Definitu diren ekimenek arrakasta izateko edo porrot egiteko faktore nagusietako bat horietan esku hartzen duten eragileen konpromisoa izango da. Horri dagokionez, BPPk lortu behar du sailek Plana berezkitzat hartzea eta horren garapenean partaide sentitzea; hori funtsezkoa da. Alderdi hori bereziki garrantzitsua da zerbitzu elektronikoak abian jartzean; izan ere, prozesu horietan, sailtako langileek egin behar dute ahaleginaren zati handi bat.
- **Lidergoa.** Administrazio Publikoko Sailburuordetzak Planari eman dion bultzada erabakigarriaren ildotik, garrantzitsua da proiektu bakoitzak lider argi bat izatea, ekimena bultzatzeko konpromisoa izango duena. Premisa hori egokia da, halaber, Planari dagokionez; hain zuzen, beharrezkoa da BPP Eusko Jaurlaritza guztira zabaltzea eta Planak aurrera egitea, ezarriko diren helburuen arabera.
- **Zeharkako ikuspegia.** Ildo berean, bertan behera utzi diren sektoreetako edo sailtako proiektu teknologikoen indize altuarekin lotuta, aurretiko esperientziak erakusten du beharrezkoa dela politiken eta ekimenen zeharkako ikuspegia indartzea eta Eusko Jaurlaritzaren estrategia orokor bati zor zaizkion jardueri lehentasuna ematea, sail bakoitzarenak diren horien gainetik.
- **Aldaketaren Komunikazio eta Kudeaketa Plana.** Aurreko planetan, aldaketa komunikatzeko eta kudeatzeko ekimenak aurreikusi dira, baina inoiz ez dira ezarri. Berrikuntza Publikoaren Planaren helburuek aldaketa handia ekarriko dute gauzak egiteko moduan, eta horrek antolaketa guztian eragingo du. Horregatik da ezinbestekoa esku hartzen duten guztiek helburu berak izatea, filosofia bera, hau da, haiengandik zer espero den

eta nola parte hartu behar duten jakitea. Hori lortzeko, ezinbestekoa da komunikazio eta aldaketa-kudeaketa egokia.

- **Prestakuntza.** Gauzak egiteko beste modu bat izateko (hori lortu nahi da), beste trebetasun eta gaitasun batzuk behar dira. Planaren ekimen bakoitzean sortzen diren prestakuntza-premia espezifikoak identifikatzeaz harago, ezinbestekoa da prestakuntza orokorreko plan bat izatea, erakundeko langileei testuinguru berrira egokitzeko tresna egokiak ematea xede izango duena. Besteak beste, ezaugarri hauek beharrezkoak dira erakunde guztirako: hainbat balio edukitzea —adibidez, berrikuntza eta zerbitzua emateko jarrera— eta trebetasun teknologikoak izatea, teknologia berrietan, webguneetan, komunikazio-kanal berrietan eta sare sozialetan.
- **Antolaketa-egituren egokitzapena.** Egungo ereduan oinarritu diren antolaketa-egiturek ez dute behar beste malgutasun berrikuntzaren eta administrazio elektronikoaren eredu berria ezartzeko egin behar diren zeregin berriak behar bezala bultzatzeko. Beraz, zeregin eta erantzukizun berrietara doitzeko lanpostuen profilak egokitzea funtsezko elementua da berrikuntzaren eta administrazio elektronikoaren bidean aurrera egiteko tresnak izateko.
- **Kontrola eta jarraipena.** Kudeaketa-egitura konplexuak ezarri beharrik izan gabe, beharrezkoa da Planaren inguruan proiektu-diziplina bat izatea. Proiektu bakoitzaren baitan eta, oro har, Planean, zuzendaritzarako, koordinaziorako, jarraipenerako eta kontrolerako organo egokiak ezarri, Plana gauzatu nahi den urteetan izan beharreko bultzada indartuko da.
- **Adierazle argiak ezartzea.** BPPren proiektuen jarraipen egokia egiteari dagokionez, garrantzitsua da adierazle-multzo bat ezartzea, Planaren helburuak betetzeari dagokionez egiaz zenbat aurreratu den jakiteko aukera ematen duena. Neurtzeko edo interpretatzeko adierazle edo adierazle konplexu ugari erabiltzea saihestu behar da. Adierazleak (adibidez, eskura dauden zerbitzu elektronikoaren kopurua edo zerbitzu horiek aurrez aurrekoekin alderatuz duten erabileraren %) izango dira ezarritako helburuak betetzearen berme argiak.

{21





- **Teknologiaren kudeaketa-eredua.** Eusko Jaurlaritzaren egungo IT eredua haren bilakaeraren eta hura osatzen duten arlo/sail gehienek kasuistika bereziaren emaitza da. Askotan, sail eta erakunde autonomiadun batzuek nahiz erakunde publikoek dituzten lehentasunak eta berezitasun propioak izan dira erabakiak hartzeko oinarri; hain zuzen, badirudi horien helburua gehiago zela negozio partikularrak lehenestea ideia korporatiboa bultzatzea baino. Beraz, honako egoera honetan aurkitzen gara: Eusko Jaurlaritzaren IT funtzioaren egoera eta horren kostua ezagutzeko zailtasuna; argitasun falta IT gaitasunak definitzean (Administrazio Sare Korporatiboa vs. Sektore Sareak); estrategia komunik ez; hutsunea IT arloko erabakiak hartzeko ereduari; eta euskarri juridiko argirik ez.

BPPri dagokionez, garrantzitsua da haren erronka nagusietako bat hau izatea: Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa-ereduari eta euskarri teknologikoari buruz hausnartzea nahiz banaketa hori eragin duten hipotesiek indarrean jarraitzen duten aztertzea; halaber, garrantzitsua da egungo eta etorkizuneko premiei erantzuneko dien ereduak gauzatzea eta argitzea.

BPPk gauzak egiteko moduan aldaketa asko egiteko erronkari egin behar dio aurre. Aurretiko esperientziak eman dizkigun irakaspenetatik ikasiz soilik eman ahal izango diogu behin betiko bultzada, eta horri esker, Eusko Jaurlaritzak euskal gizartearen eskaerak gogobete ahal izango ditu administrazio irekiago eta modernoago baten bidez, bizkortasuna, efizientzia eta gertutasuna ezaugarri dituenak.



2.4. Berrikuntza Publikoaren Plana egungo testuinguruan

2.4.1. Nazioko eta nazioarteko testuingurua

Nazio- eta nazioarte-mailako estrategia argi bat dago, eta horrek informazio-gizartearen eta administrazio publikoen berrikuntzaren alde egiten du lehiakortasuna bultzatzeko funtsezko elementutzat. Horri dagokionez, BPPk sortzetik beretik hartu du aintzat estrategia hori, eta jarduera-plan horien lehentasun eta helburu gehienak partekatzen ditu; hain zuzen, horiekin lotzen ditu bere jarduerak.

Europar, **Agenda Digitala** funtsezko ekimenaren baitan, honako lehentasun hauek ezarri ditu, besteak beste, Europa 2020 estrategiak: elkarreragingarritasuna, industriarako esparru-baldintzak hobetzea eta herritarrentzako harreman-bide bakarreko guneak. Lehentasun horiek BPPren dagozkion eremuetan jaso dira, eta Zerbitzu elektronikoak, administrazioen arteko lankidetzak, herritarren arreta eta kudeaketa-bikaintasuna ildoen oinarritzko estrategiaren parte dira.

Bestalde, administrazio elektronikora bereziki zuzenduta dauden **Malmöko eta Granadako adierazpenek** honako lehentasun hauek izango dituzte: zerbitzu elektronikoak eta administrazioen arteko lankidetzak sustatzea, politika publikoak ebaluatzea, gardentasuna areagotzea, datu publikoak berrerabiltzea, herritarrentzako eta enpresentzako administrazio-kargak gutxitzea, berrikuntza eta kostuak aurrezteak bultzatzea e-Administrazioan, administrazio elektronikoaren erabilera indartzea eta lizitazio elektronikoak sustatzea. Europa 2020 estrategiarekin bezala, BPPk bere egituraren funtsezko ardaztat hartu ditu lehentasun horiek; hain zuzen, BPPren parte izango diren ekimenetan gauzatuko dira.

Nazioan, eduki eta zerbitzu digitalei dagokienez, **Avanza 2 Planak** Administrazio publikoan IKTen prozesu berritzaileak sustatzea du xede, honako hauek lortzeko:

Europarekin eta Espainiarekin lotutako plan estrategikoa.

BPPn, Europako Agenda Digitalaren helburuak eta lehentasunak jaso dira, bai eta Malmö eta Granadako adierazpenak eta Avanza 2 Plana ere.

{23



- 2015. urterako, paperik gabeko administrazio publikoa lortzea, izapideak digitalizatzeari, sinadura elektronikoa sartzeari eta erregistro elektronikoak sortzeari esker.
- Baliabideak partekatuz, 2013rako, administrazioaren baliabide informatikoetan % 3 aurrezte.
- 2015. urterako, herritarren % 50 eta enpresen % 90 Administrazioarekin Internet bidez komunikatzea.

Helburu horiek BPPren oinarrizko printzipiotzat sartu dira, eta hori osatzen duten ekimenetan nahiz Planaren helburuetan ikus daitezke.



2.4.2. Berrikuntza Publikoaren Plana eta IX. legegintzaldiko helburuak

BPP Jaurlaritzaren plan estrategikoa izanik, oso kontuan hartzen du egungo legegintzaldiaren programa-helburuak betetzea; horrenbestez, bai bere definizioa, bai bultzatu nahi dituen ekimenak **Gobernu-programarekin** eta **Euskadi 2013** estrategiarekin daude lotuta.

Horri dagokionez, erreferentzia laburra egin dakioke Planak gobernu-estragiarekin duen lotura egiaztatzeko aukera ematen duten zenbait elementu nagusiri:

- Berrikuntza Publikoaren Planak argi eta garbi egiten du administrazio publikoaren baitako *berrikuntzaren* alde, bai eta *ezagutzaren gizartearen garapenean* laguntzearen alde ere, administrazio elektronikoaren garapena eta administrazioan bertan teknologiaren erabilera bultzatuz. Elementu horiek (berrikuntza eta ezagutzaren gizartearen garapena) jada azpimarratu ziren hauteskunde-programan; programa horretan, hain zuzen, "produktibitatearen hobekuntzan, I+G+b arloan, ezagutzaren gizartean eta ingurumen-garapen iraunkorrean oinarritutako garapen ekonomikoaren beste eredu bat" ezartzeko konpromisoa aztertu zen. Hauteskunde-programa horren baitan, hazkunde ekonomikorako hamaika helburu daude zehaztuta; lehenengoa, hain zuzen, honako hau da: "*Euskadin, zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren aldeko apustua gidatzea*".
- Hau da aipatutako beste helburuetako bat: "*Baliabide publikoen kudeaketa zorrotza eta gardena*". Zorroztasuna eta baliabideen erabilera eraginkorra nahiz Gobernuaren eta Administrazioaren ekintzen gardentasuna behin eta berriz errepikatzen diren BPPn; hain zuzen, BPPko zenbait ekimen elementu horien inguruan daude antolatuta.
- Hauteskunde-programan "*Euskal Administrazio publikoaren modernizazioa*" izendatu denari buruzko politikan, proposatu da politika hori hainbat printzipiotan oinarritzea, adibidez: gardentasuna, etengabeko informazioa eta informazio ulergarria,

*Eusko Jaurlaritzaren
estragiarekin bat
egiten duen plana,
beste ekimen
estragiarekin
sinergiak bilatzen
dituena.*

{25



herriarren parte-hartzea eta administrazioen arteko lankidetzak. Egiturari dagokionez, elementu horiek bat egiten dute BPPrekin, eta hala ikus daiteke bai Planaren misioan, bai BPPren helburu estrategikoen garapenaren aurrerapenean, horietako batean (Administrazio irekia) printzipio horiek garatu eta gauzatzea proposatzen baita.

- Administrazio elektronikoari dagokionez, hauteskunde-programan honako konpromiso hau hartu da: *Administrazio elektronikoa (e-government) garatzea eta neurri osagarriak hartzea, Eusko Jaurlaritza gardentasunaren, parte-hartzearen, kudeaketaren eta herritarrek egiten duten IKTen erabileraren eredu bihurtuko dutenak. Horri dagokionez, Espainiako Gobernuarekin, foru-aldundiekin eta udalekin elkarlanean arituko gara, hainbat administrazioen ahaleginak koordinatu ahal izateko*". Elementu horiek Administrazio elektronikoaren ardatz estrategikoan ageri dira, eta bereziki, *Zerbitzu elektronikoak eta Administrazioen arteko lankidetzak* ildoetan.
- 2009ko maiatzaren 5eko lehendakariaren inbestidura-ekitaldiko diskurtsoan, "gure administrazioen eraginkortasuna eta gure zerbitzu publikoen funtzionamendu egokia" sustatzearen alde egin zuen, bai eta "euskal Administrazioaren funtzionamendua hobetzeko berrikuntzak egin, eta horren egiturak errealitate berrietara egokitzearen alde ere"; elementu horiek une oro hartzen dira BPPren helburuen eta ekimenen oinarri.
- Justizia eta Administrazio Publikoko sailburuak, 2009ko ekainaren 16an Legebiltzarreko zegoian Batzordearen aurrean egin zuen agerraldian, IKT tresnak erabiliz honako ondorio hauek eragingo zituzten politiken alde egin zuen:
 - o Euskal Autonomia Erkidegoko segurtasun-, irisgarritasun- eta elkarreragingarritasun-arauak eguneratzea.
 - o Administrazioen arteko lankidetzak sustatzea, administrazio elektronikoaren garapenean.
 - o Administrazio-ekintzak gardenak izatea eta herritarren parte-hartzeari irekiak.
 - o Esperimentazio-egoera iraunkor bat ezartzea, berrikuntza bultzatzeko; horretarako, parte-hartzearen faktorea bultzatu behar da, bai eremu publikotik, bai pribatutik.
 - o Webguneen irisgarritasun- eta erabilgarritasun-maila egokia bermatzea.



- o Emandako informazioaren fidagarritasuna bermatzea, bilaketak erraztea eta eduki interesgarriak, garrantzitsuak eta argiak ematea.
- o Euskadi.net webgunean bilakaera bat izatea, elkarriketarako eredu bihurtzeko eta herritarrekiko elkarreragina bermatzeko.
- o Eta azkenik, politika publikoen programazio-, plangintza- eta ezarpen-zikloan politika publikoen ebaluazioa aintzat hartzea, ohiko jardueratzat¹.

Proposamen horiek guztiak Berrikuntza Publikoaren Planaren ekimenetan eta helburuetan islatu dira.

Bestalde, elementu espezifikoetarako buruzko xehetasunetan sartu gabe, beharrezkoa da azpimarratzea Berrikuntza Publikoaren Planak gobernu-plangintzaren beste ekimen batzuen helburu, sinergia eta harreman berak dituela, adibidez honako hauenak:

- Enpresa Lehiakortasunaren Plana; BPPren berrikuntza-printzipio berak ditu, baita lidergo eraldatzailea ere; horrez gain, plan hori egiteko prozesua orokorra, parte-hartzezkoa eta lankidetzazkoa izan da, BPPren gisan.
- Euskadi Informazioaren Gizartean Plana; plan honek Berrikuntza Publikoaren Planaren helburu berak ditu informazioaren gizartea administrazio publikoaren eremuan garatzeari dagokionez.

{27

¹ Horretarako, aintzat hartu behar da Justizia eta Administrazio Publikoko sailburuak 2010/5/5ean Legebiltzarreko Justizia Batzordearen aurrean egindako agerraldia, politika publikoaren ebaluazioaren berri emateko.



2.5. Berrikuntza Publikoaren Planaren eragin-esparrua

2.5.1. Esparru funtzionala

BPP nahiko plan zabala da hartzen dituen hainbat funtzio-eremuren arabera. Horri dagokionez, hauek dira Berrikuntza Publikoaren Planean dauden eremuak edo arloak:

- Administrazio elektronikoa.
- Interneten duen presentzia.
- Herritarren arreta.
- Gobernu irekia: gardentasuna, lankidetza eta parte-hartzea.
- Datu publikoak eskuragarri egotea.
- Administrazioen arteko lankidetza.
- Berrikuntza.
- Ezagutzaren kudeaketa.
- Politika publikoen ebaluazioa.
- Kudeaketaren kalitatea eta bikaintasuna.
- Administrazio-gaien sinplifikatzea.
- Administrazio-kargak gutxitzea.
- Antolaketa eta giza baliabideak.
- Informazio-sistema korporatiboak.
- Azpiegitura teknologikoak.
- Informazio-teknologiaren gobernuak.

Funtsezkoa da kontuan hartzea aipatu diren eremu edo arlo asko kontzeptu zabalei zor zaizkiela, eta horien mugak ez datozela beti bat adostasun orokorrarekin. Horrelakoetan, BPPren ekimen eta helburu bakoitza esplizitua da bere jardueraren eragin-eremuari edo izaerari dagokionez.



2.5.2. Antolaketa-esparrua

Berrikuntza Publikoaren Plana Gobernuaren plan bat da, eta, beraz, horren pean dauden sail eta erakunde guztietan eragiten du.

Eusko Jaurlaritzaren pean dauden hainbat erakundek, sozietate publikoek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta abarrek Planaren ardatz estrategiko bakoitzean esku hartuko dute, neurri handiagoan edo txikiagoan.

Laburbilduz, beheko taula honetan ikus daiteke esku-hartzearen maila hori:

Antolaketa- eremua	Administrazio elektronikoa	Administrazio irekia	Administrazio berritzailea	Berrikuntza teknologikoa
Administrazio Orokorra ²	Bai	Bai	Bai	Bai
Erakunde autonomiadunak	Bai	Bai	Bai	Bai
Talde espezifikoak ³	Ekimen zehatzetan	Ekimen zehatzetan	Ekimen zehatzetan	Sistema korporatiboak eta IT kudeaketa- ereduak ildoetan
Zuzenbide pribatuko erakunde publikoak	Ekimen zehatz bakoitzaren arabera	Ekimen zehatz bakoitzaren arabera	Ekimen zehatz bakoitzaren arabera	IT kudeaketa- ereduaren ildoan
Sozietate publikoak	Ekimen zehatz bakoitzaren arabera	Ekimen zehatz bakoitzaren arabera	Ekimen zehatz bakoitzaren arabera	Ekimen zehatz bakoitzaren arabera

² Eusko Jaurlaritzako sailen zerbitzu zentralak, ordezkariak eta lurralde-bulegoak.

³ Hezkuntza-sistema, Ertzaintza eta Justizia Administrazioa.



2.5.3. Eskumen-esparrua

472/2009 Dekretuaren 15. artikulua araber, Administrazio Publikoko Sailburuordetzari dagokio honako funtzio hauek betetzea:

- *“Herri administrazioa arrazionalizatu, hobetu eta eraberritzeko lanak bultzatzea, zuzentzea eta garatzea.*
- *Administrazio eta gobernu elektronikoak bultzatzea eta zuzentzea, bereziki, zerbitzuen digitalizazioa; eta horretaz gain, Administrazioa eraberritzeko eta Administrazio eta gobernu elektronikoak garatzeko administrazioen arteko jarduerak bultzatzea.*
- *Euskal herri-administrazioen antolaketaren eta prozeduraren araubidea, Araubide Juridikoaren Sailburuordetzarekin batera.*
- *Herritarrei informazioa eta arreta emateko mekanismo, tresna eta zerbitzu zentralizatua eta bide anitzekoa bultzatzea eta garatzea.*
- *Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Kontratazio Araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren V. kapituluaren arabera Justizia eta Herri Administrazio Sailari dagozkion eginkizunak.*
- *Hainbat sailtako zerbitzuak, artxiboak eta argitalpenak.*
- *Informazio- eta telekomunikazio-sistema korporatiboak”.*

Eusko Jaurlaritza osoaren zeharkako gaitasun horiek gauzatzuz, Administrazio Publikoaren Sailburuordetzak Berrikuntza Publikoaren Plana bultzatuko du, Eusko Jaurlaritzaren administrazio publikoa modernizatzeko tresnatzat.

Horri dagokionez, zeharkako eskumenak dituzten beste unitate batzuek ere beren eskumeneko eremu espezifikoetan esku hartuko dute. Hala gertatzen da, adibidez, honako unitate hauekin:

- Funtzio Publikoaren Sailburuordetza; giza baliabideen politikari nahiz administrazioa egituratzen den unitateen arrazionalizazioari eta antolaketari dagokionez.
- Koordinaziorako Zuzendaritza; politika publikoak definitzean, koordinatzean eta gauzatzean Euskal Gobernantza Publikoa ezartzeari dagokionez.



- Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritza; Gobernuak egiten dituen ekintzen gardentasuna Interneten zabaltzeari dagokionez.
- Herritarren Parte-hartzerako Zuzendaritza; herritarrek aurkeztutako proposamenak eta proiektuak koordinatzeari eta, ahal bada, horiek ezartzeari dagokionez, bai eta ekimenak proposatzen dituzten eragileen eta pertsonen eta organo eskumendunen arteko harreman zuzena indartzeari dagokionez ere.
- Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen Zuzendaritza; informazio-gizartea eta ezagutza garatzeari dagokionez.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren hainbat sail eta erakundek beren eskumeneko esparruan dauden hainbat proiektu eta ekimen espezifiko bultzatu eta zabaltu beharko dituzte.



Gure erantzuna Administrazio Publikoaren erronka berriei

03



{33

Adierazpen estrategikoa





3. Adierazpen estrategikoa

3.1. Planaren misioa eta ikuspegia

“Hobeto funtzionatuko duen eta gutxiago kostako zaigun administrazio publikoa nahi dugu. Hori da, hain zuzen, nire Sailaren erronka nagusia, eta hori da, halaber, Eusko Jaurlaritza egiten ari den Berrikuntza Publikoaren Planaren asmoa. Plana administrazio irekiagoa eta berritzaileagoa eraikitzeko tresna da; gardentasunaren, parte-hartzearen eta lankidetzaren printzipioetan oinarrituko den administrazioa, ematen dituen zerbitzuen kalitatea etengabe ebaluatuko eta hobetuko duena, zerbitzu publikoak eraginkortasunez erabiliko dituen, herritarrek zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoen bidez erabiltzeko eskubidea gauzatuko duena”.

Idoia Mendia,

Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio sailburua

Herritarrek eta enpresak xede dituen estrategia, administrazioaren berrikuntzan eta irekia izatean oinarritua.

Eusko Jaurlaritzako profesionalen konpromisoarekin eta egiten dituzten ekarpen baliotsuekin indartutako administrazioa.

Berrikuntza Publikoaren Planean, misioa eta ikuspegia definitu eta identifikatu dira planaren adierazpen orokorraren oinarri estrategiko nagusitzat.

Misioa da *“asmo orokor bat, Eusko Jaurlaritzak premia edo gizarte-eskakizun zehatz bat gogobetetzeko hartutako bidea justifikatzen duena, bere jardueraren izaeragatik, izateko duen arrazoigatik, xede duen gizarteagatik, eta bere oinarrizko printzipioak nahiz balioak direla eta⁴”.*

Bestalde, **ikuspegia** da *“herrialdeak, dagokion gaiaren esparruan, etorkizunean izan beharko zukeenaren adierazpena; hots, lortu nahi diren aldaketak; onuradun diren taldeen edo eragin nahi den sektoreen etorkizunerako egin nahi ditugun ekarpenak⁵”.*

⁴ Sailek gobernu-planak egiteko jarraibideak. Jaurlaritzaren Lehendakaritza.

⁵ Idem.

Beraz, hauek dira BPPren misioa eta ikuspegia:

Misioa:

“Administrazio **berritzailea** eta **irekia** sortzea, gizarteari kalitatezko zerbitzuak, eraginkorrak, efikaziadunak eta seguruak emango dizkiena, ingurunearekin elkarlanean eta **herritarren parte-hartze aktiboa** aintzat hartuta; hau da, **pertsonak** izango dira **aldaketaren protagonista**. Hori guztia, gainera, gobernantza-balio berriak oinarri hartuta egingo da, hots: irekia izatea, emaitzetara bideratutako orientazioa, gardentasuna eta berrikuntza”

Ikuspegia:

“Euskadiko Administrazioa herritar **arduratsuen** eta **gizartearen ongizatearen alde lan egiteaz** harro dauden zerbitzu publikoko profesionalen arteko **harreman-gunea**”

3.2. Helburu estrategikoak

3.2.1. Eredu kontzeptuala

Berrikuntza Publikoaren Planak garapen-esparru propioa du: eredu kontzeptuala.

Eredu hori, zehazki, 2.4. *Berrikuntza Publikoaren Plana egungo testuinguruan* atalean jada aipatu diren estrategien baitan dago sartuta.

Testuinguru estrategiko horretan garatzen da eredu kontzeptual hori, eta honako ezaugarri hauek ditu:

- ✓ Egungo **testuinguru soziala, ekonomikoa eta legala** hartzen ditu kontuan.
- ✓ **Herritarrei** dago zuzenduta: herritarrek eta enpresek eskatzen dituzten zerbitzuak eskaintzen ditu.
- ✓ Lan-metodotzat **berrikuntza** eta **kudeaketa-bikaintasuna** bultzatzen ditu.

Testuinguru sozialari, ekonomikoari eta legalari erantzuten dion Plana, lan-metodotzat berrikuntza eta kudeaketa-bikaintasuna hartzen dituena.

{37

Elementu horiek erabakigarriak dira BPPren adierazpen estrategikoan, horren helburuak zehazteko aukera ematen baitute; helburu horiek, zehazki, honako oinarri hauek dituzte:

- **Zerbitzu-eredua.** Eredu honek betekizun hauek izango ditu:
 - ☐ Herritarren premietara egokituta egotea.
 - ☐ Informazio-zerbitzuen erabilgarritasuna areagotzea.
 - ☐ Zerbitzu horien erabilera sustatzea.
 - ☐ Administrazio-kargak gutxitzeko behar diren elkarreragingarritasun-mekanismoak garatzea.
 - ☐ Eta azkenik, erabiltzaileen gogobetetzea areagotzen laguntzea.
- **Harreman-eredua.** Herritarren premiak jasotzeko aukera eman behar du. Horregatik, harreman-ereduak honako ezaugarri hauek izan behar ditu:
 - ☐ Herritarren parte-hartzeri eta administrazioen arteko lankidetzari irekia izatea.
 - ☐ Eta jarduera guztietan gardentasunez jokatzeko.



- **Antolaketa, prozesuak eta teknologia;** zerbitzuen eredua eta harreman-eredua garatzeko behar den euskarria eman beharko dute, herritarren premiei erantzun ahal izateko.



3.2.2. Helburuak zehaztea eta identifikatzea

Helburu estrategikoak erakundeak erdietsi nahi dituen etorkizuneko guneak dira, eta Planaren jokaera operazionalak eta taktikoak gidatzeko balio dute. Helburu horiek honelakoak izan behar dute:

- Neurgarriak
- Ulergarriak eta kongruenteak
- Errealistak eta koherenteak
- Eskuragarriak
- Motibagarriak
- Epe ertainerako eta luzerako proposatuak


*Berrikuntza
Publikoaren Planak
emaitzak lortzea du
xede.*

*Beraz, Planaren
helburu estrategiko
guztiak neurgarriak,
errealistak eta epe
espezifiko batean lor
daitezkeenak dira.*


Hauek dira BPPren helburuak:

- **Administrazio eraginkorra bermatzea:** zerbitzuak ematean, eraginkortasunez jokatzeko eta herritarren orientatzea.
- **Administrazio irekia sustatzea:** lankidetzaren bultzatzen duen administrazioa, herritarrekin eta enprekin konprometitua.
- **Administrazio eraginkorra lortzea:** zerbitzu-eredu berria eta herritarrekiko eta enpresekiko harreman-eredua bultzatzen duen erakundea.

Jarraian agertzen den diagraman, planaren helburuek oinarri dituzten printzipioekin eta helburu horiek betetzen direla neurtzeko adierazleekin duten lotura ikusi ahal izango da; hori guztia, gainera, herritarren eta enpresen orientaziorako eta bikaintasunerako testuinguruan (emaitzen konpromisoa eta kalitatea).



Horrez gain, hurrengo irudian, helburuen eta BPPk oinarri duen eredu kontzeptual estrategikoaren arteko lotura ikus daiteke.




3.2.3. Helburuak garatzea

Garapen-eremu bakoitzerako, Berrikuntza Publikoaren Planak konpromisoa du beharrezko mekanismoak garatzeko, helburu hauek lortzeko bidean:

1. helburua: Administrazio eraginkorra

Hainbat bide erabiliz (aurrez aurrekoa, telefonoa, Internet) eskura daitezkeen kalitatezko zerbitzuen eskaintza garatzea



{41

2. helburua: Administrazio irekia


Administrazio publikoan gardentasuna, parte-hartzea eta lankidetzaren sustatzea.



⁶ Autonomia-erkidegoetako gardentasun-indizea (INCAU), Espainiako Nazioarteko Gardentasuna erakundeak egin.

3. helburua: Administrazio efizientea

Administrazio-kudeaketan efizientzia hobetzea; horretarako, erakundea egokitu, prozedurak erraztu eta teknologia eguneratu behar da.



3.3. Ardatz estrategikoak

Helburu estrategikoak garatzeko, eta Berrikuntza Publikoaren Planaren misioa eta ikuspegia kontuan hartuta, 4 ardatz estrategiko identifikatu dira:

Aldaketa azkarrak eta aldaketa sakonak konbinatzea, estrategia argi, garden eta parte-hartzailea erabiliz egungo eta etorkizuneko zerbitzu publikoen iraunkortasuna eta kalitatea bermatuko dituen.

1. Administrazio elektronikoa:

Eusko Jaurlaritza herritarrengana gerturatzea bultzatzeko jarduera-eremua da. Horrez gain, beharrezko aldaketa-eragile izan behar du, Agenda Digitalari buruzko Europa 2020 programan definitutako estrategiarekin bat egiteko.



2. **Administrazio irekia:** Eusko Jaurlaritzaren identifikazio-elementu izan behar duen jarduera-eremua. Herritarrek erabaki-hartzeetan parte hartzeko aukera da, bai eta administrazioa herritarrengana eta enpresetara gerturatzeko ere.
3. **Administrazio berritzailea:** hobekuntza lortzeko berrikuntza eta ezagutzaren kudeaketa aintzat hartu behar dituen jarduera-eremua da; hau da, administrazioaren antolaketa egokitu egin behar da barne-kudeaketan eta zerbitzua ematean bikaintasun-eredua lortze aldera, eta horrez gain, politika publikoen ebaluazioa bultzatu behar da, egiten diren jardueren eraginkortasuna neurtzeko.
4. **Berrikuntza teknologikoa:** jarduera-eremu hau beharrezkoa da zerbitzu elektronikoak abian jartzeko euskarritzat, bai eta herritarren parte-hartzerako beste bide batzuk irekitzeko behar diren euskarritzat ere.

3.4. Ildo estrategikoak

Ardatz estrategiko horiek garatzeko, zenbait jarduera-ildo identifikatu dira, garapen hori lortzen erabakitazunez laguntzeko ezinbestean landu behar direnak.

Horri lotuta, hauek dira garatu beharreko ekimen nagusiak identifikatzeko landu behar diren jarduera-eremuak:



{45

Ildo estrategiko horietako bakoitzak proiektu-multzo bat du, planaren helburuak betetzen lagunduko duena. 14 ildo estrategikoetako bakoitzaren konfigurazio orokorra hurrengo kapituluan deskribatuko den plan operatiboaren parte da.

*Etorkizunera
begiratzea kanal eta
zerbitzu
eskuragarriagoak eta
herritarren nahiz
enpresen premietara
bideratuak garatzea;
horrez gain,
Administrazio
elektronikoa
sendotuko da, zerbitzu
handiagoa eta hobea
emateko bitartekotzat.*

ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN ARDATZA

1. ildo. Zerbitzu elektronikoak garatzea



BPPren lehentasuna da zerbitzu elektronikoen eskaintza eta eskaera indartzea. Horretarako, zerbitzu elektronikoak abian jartzeko zabaltze handia egingo da; horrez gain, ahalegin handia egingo da barneko agenteak, herritarrak eta enpresak prestatzeko eta komunikatzeko, bai eta euskarri funtzionaleko eta teknikoko zerbitzu bat abian jartzeko ere.

2. ildo. Administrazio elektronikoaren plataforma aldatzea



BPPren xedea da lan egitea honako hauek lortzeko: erabilgarritasuna hobetzea, funtzionaltasunek aurrera egitea eta bilakaera izatea, administrazio elektronikoaren plataformaren estandarizazio elektronikoa lortzeko bidean.

Erabilgarritasuna hobetzeko ere beharrezkoa da, neurri handi batean, euskarria eta prestakuntza hobetzea; horrela, lortu nahi da plataformaren barne-erabilera modu masiboan orokortzea.

3. ildo. Araudiaren egokitzapena



Araudiari dagokionez, ekainaren 22ko 11/2007 Legean, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzkoan, ezarritako oinarriak garatzea bultzatuko da.

Horrela, berme juridiko guztiak oinarri hartuta, hainbat alderdi babestu nahi dira, adibidez:

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren egoitza elektronikoa; izapide elektronikoak egitean, herritarrak eta administrazioa identifikatzeko eta bera dela egiaztatzeko modua; komunikazio eta jakinarazpen elektronikoa; eta fitxategi, dokumentu eta espediente elektronikoak.

ADMINISTRAZIO IREKIAREN ARDATZA:

4. ildo. Interneteko presentzia-eredua hobetzea



BPPk Interneteko egungo presentzia-ereduaren bilakaera erraztuko du, administrazio irekia Gobernuaren estrategiarekin bateratuz.

Helburu hori lortu nahian, ildo honetako ekimenek honako hauek lortzea dute xede:

Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa abian jartzea (funtsezko elementua zerbitzu elektronikoak emateko); Interneteko presentzia-ereduan bilakaera izatea, web 2.0 sistema lortzeko bidean; gai honetako egungo antolaketa-eredua egokitzea; eta beste era bateko Intraneta abian jartzea, funtsean lankidetzan oinarritutako ikuspegiarekin.

Euskadiko administrazioaren eta herritarren arteko elkarreraginerako eta harremanetarako beste estrategia bat, komunikazio- eta lankidetzakanal berrien bidez.

5. ildo. Herritarren arreta hobetzea



Eremu honetan, herritarrei arreta eraginkorra eta kalitatezkoa emateko prozesuen antolaketa eta hobekuntza landu da. Beste ekimen batzuk sartu dira, sailen arteko harreman-eredua berriro diseinatzeko, administrazio-hizkuntza sinplifikatzeko eta arretarako eredu bateratua (Zuzenean)

handitzea aztertzeke.

{47

6. ildo. Gardentasuna eta parte-hartzea areagotzea



BPPren bidez, gardentasunari bultzada ematea bermatuko da, eta horregatik, gardentasunari buruzko webgune espezifiko bat jarriko da abian; bertan, lege-ekimenei, gobernu-planei, aurrekontuei, administrazio-kontratazioei, Legebiltzarreko galderei eta Arartekoari egindako kexei buruzko informazioa emango

da, eta aldi berean, gainerako arloetako gardentasuna hobetu eta Irekia atariaren bilakaera bultzatuko dira.

Parte-hartzeari dagokionez, aurreikusitako ekimenen xedea da herritarrek lege-ekimenetan eta plangintza estrategikoetan duten parte-hartzea bultzatzea.



Halaber, ildo honetan sartzen da Open Data datu publikoak modu irekian eskaintzeko ekimenaren bilakaera ere.

7. ildo. Administrazioen arteko lankidetzaren esparru egonkorra garatzea



BPPren konpromisoa da Eusko Jaurlaritzak Euskadiko administrazioen arteko lankidetzaren foro batean parte har dezala sustatzea; horren bidez, aurrera egin nahi da administrazioen arteko elkarlanean eta lankidetzan. Jarduera-ildo honetan, lankidetzarako administrazioen arteko tresna

bat sortzearen gaia landuko da. Horrez gain, beste administrazioekin elkarlanean garatu beharreko eremuen multzo bat zehaztu da; besteak beste, honako hau azpimarratu behar da: elkarlanean garatutako plataformak bat sortzea, Euskadiko administrazioen artean informazioa kontsultatzeko aukera emango duena, horrela ez baita izango herritarrei ziurtagiriak eskatzeko beharrik.

Era berean, lankidetzaren sustatzen jarraituko da beste hainbat gaitan: herritarren arreta, dokumentu-erregistroak, administrazioen arteko izapidetzeak, baterako prestakuntza eta IKT alorreko efizientzia hobetzea.

ADMINISTRATIO BERRITZAILEAREN ARDATZA

8. ildo. Berrikuntza eta ezagutzaren kudeaketa sustatzea



Berrikuntza da Berrikuntza Publikoaren Planak oinarri duen ardatzetako bat; beraz, kontzeptu hori plan osoan sartzen saiatu gara.

Berrikuntzaren ildo espezifiko honetan, bestalde, lehentasunezkoa da **administrazioa eraldatzen** aurrera egitea, eta **zerbitzu**

publikoak eta barne-kudeaketa hobetzen eta berritzen jarraitzea, lankidetzeta eta ikaskuntza partekatuen bidez. Horretarako, ekimenak antolatu dira administrazioan berrikuntza zabaltzeko funtsezkotzat hartu diren tresnen eta ereduaren inguruan, adibidez: praktika-komunitateak, berrikuntza-lantaldeak eta sare profesionalak.

Erakundeak bultzatutako estrategia eraldatzailea da, berrikuntzaren, ebaluazioaren eta kudeaketa-bikaintasunaren beste kultura bat oinarri hartuta.

9. ildo. Politika publikoak ebaluatzeko kultura sustatzea



Politika publikoen ebaluazioa bultzatuz, efizientzia eta baliabideen optimizazioa hobetzen dira; horrez gain, erakunde baten gardentasuna hobetu eta konpromisoa eta koherentzia adierazten ditu. Bultzada hori da, hain zuzen, ildo honen gakoa.

BPPren bidez, beharrezko oinarriak eta ebaluatze-baldintzak garatuko dira, **ebaluazioa politika publikoen programazio-, plangintza- eta ezarpen-ziloan ohiko jardueratzat sartzeko**; horretarako, sentsibilizazioa, trebakuntza, baliabideak eskura jartzea eta metodologia hartuko dira oinarri.

{49



10. ildo. Kudeaketa-bikaintasunaren esparru bat garatzea



Ildo honen xedea da kalitatezko eta kudeaketa-bikaintasuneko politika bat diseinatzea eta garatzea Eusko Jaurlaritza guztirako.

Ildo honetan zehaztutako ekimenek egungo egoeraren azterketa egingo dute; horrela, esparru korporatibo bat eta bikaintasunerako sustapen-plan bat ezarriko da gero.

Hori guztia osatzeko, plan bat egingo da, administrazio-izapidetzeek enpresei eragiten dizkieten kargak nabarmen gutxitzea lortzeko.

11. ildo. Antolaketa eta giza baliabideak



Ildo honen bidez, Erakundea prestatu nahi da, BPPn proposatu diren aldaketa guztiak gauzatu ahal izateko; horregatik, ildo honetako ekimenen xedea da Eusko Jaurlaritzako profesional askoren funtzioak aldatzea eta bertako zuzendari publikoen profesionalizazioan aurrera egitea.

Horrez gain, antolaketa-egiturak hobetu nahi dira, administrazio elektronikoari babesa emango dioten zeharkako funtzioen eta eginkizunen bidez, efizientzia eta eraginkortasun handiagoa lortu nahian.



14. ildo. IT kudeaketa-ereduaren definizioa



BPPrentzat lehentasunezkoa da IKTen kudeaketa-ereduaren egungo egoeraren eta horrek Gobernu osoan duen eraginaren azterketa bat egitea, ikuspegi globala eta estrategikoa oinarri hartuta; horrela, egun egon daitezkeen efizientzia gabeziak konpondu ahal izango dira.

Azken batean, BPPren ondoriozko jarduera honekin lortu nahi da Eusko Jaurlaritzak IKTen kudeaketa-eredu korporatibo eta estrategikoa izatea, Gobernu osoan haren efikazia eta efizientzia hobetuko duena.

Estrategia partekatua, dinamikoa eta egoerako baldintzetara egokitua, gure administrazioa eraldatzeko.

04



{53

Plan operatiboa





4. Plan operatiboa

Plan operatiboa da BPPren ibilbide-orria. Honako elementu hauek osatzen dute:

- Ildo estrategiko bakoitzeko proiektuak: BPPn landu beharreko ekimen bakoitza deskribatzen da bertan.
- Zabalpenerako plan operatiboa: lan-egitasmoa eta Planaren plangintza eratzen duen kronograma bat da.
- Aurrekontua: Planean aurreikusitako hainbat ekimenen kalkulu ekonomikoa adierazten du.

Kapitulu honetan, hiru elementu horiek deskribatuko dira. Proiektuei dagokienez, honela egituratu dira: ildo estrategiko bakoitzaren deskribapena egin da, eta gero, hori osatzen duten proiektuak zerrendatu dira. Ekimen bakoitzaren deskribapen zehatza proiektuen edo azpiproiektuen fitxen bidez jaso da I. eranskinean.



4.1. Ildo estrategikoen garapena

4.1.1. 1. ildo. Zerbitzu elektronikoak

Zerbitzuak kanal elektronikoen bidez ematea da BPPren oinarritzko konpromisoetako bat. Kanal elektronikoen bidez zerbitzuen % 100 herritarren eskura jarritz, 11/2007 Legea betetzea da Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu elektronikoen estrategiaren ardatz nagusietako bat. Bestalde, harago joan, eta herritarrek zerbitzu elektronikoak erabiltzea irmo bultzatu nahi da; beti kontuan izan behar da prozedurak, elektroniko bihurtzean, berriro pentsatu behar direla, herritarrei eta enpresei zerbitzu publikoak bizkortasunez eta segurtasunez erabiltzeko aukera emateko.

Helburuak:

Hauek dira BPPk administrazio elektronikoaren eremuan lortu nahi dituen helburuak:

- Zerbitzu elektronikoen eskaintza osoa izatea:
 - **3. mailako zerbitzuen % 100, herritarrekiko erabateko elkarreragin elektronikoarekin⁷.**
 - **4. mailako zerbitzuen % 60, izapidetze elektroniko osoarekin⁸.**
 - **5 zerbitzu proaktibo (5. maila)⁹.**
- Zerbitzu elektronikoen erabilera bultzatzea, eta zerbitzu horiek herritarrek, enpresek nahiz langile publikoek berek dituzten premietara egokitzea. Zehazki, honako hauek lortzea:
 - **Herritarrek izapidetzen dituzten espedienteen % 20 kanal elektronikoak erabiliz egitea.**
 - **Enpresek izapidetzen dituzten espedienteen % 60 kanal elektronikoak erabiliz egitea.**
 - **Barne-espedienteen % 100 kanal elektronikoak (eskura daudenak) erabiliz egitea.**

⁷ Zerbitzu elektronikoen 3. sofistikazio-mailari egiten dio erreferentzia, Europako Batzordearen definizioaren arabera. Hau da, adierazten du herritarrek eta enpresek informazio-trukaketa bakoitza kanal elektronikoen bidez egin dezaketela; hots, inprimaki elektronikoen bidez izapideak egiten hastea, jakinarazpenak eta oharrak kanal elektronikoen bidez jasotzea, ordainketa elektronikoa erabiltzea edota beste edozein izapide egitea.

⁸ Zerbitzu elektronikoen 4. sofistikazio-mailari egiten dio erreferentzia, Europako Batzordearen definizioaren arabera. Hau da, administrazioan egiten diren izapide guztien kudeaketa aplikazio informatikoekin egiten da; horiek kudeaketan laguntzen dute eta espedientei buruzko informazio guztia sartzen uzten dute. Beraz, herritarrei ematen zaien zerbitzuaren eraginkortasuna eta kalitatea handitu egiten da.

⁹ Zerbitzu elektronikoen 5. sofistikazio-mailari egiten dio erreferentzia, Europako Batzordearen definizioaren arabera. Erabiltzaileari hark eskatu gabe ematen zaizkion zerbitzuak dira, zerbitzu elektronikoetan aurrez kargatutako datuei aurrez ezarritako eskubideen ondorio baitira. Zerbitzu horien adibide ezagunena zerga-aitorpenaren zirriborroa da, administrazioak aurrez egiten baitu.

**Ikuspegia:**

Zerbitzu elektronikoaren ikuspegiak, plan honen esparruan proposatu denak, honako printzipio eta lehentasun hauek ditu oinarri:

- Zerbitzuen % 100 Internet bidez eskura jartzea.
- Langile publikoei administrazio elektronikoari buruzko komunikazio gehiago eta prestakuntza handiagoa ematea. Hau da, bai prozeduren kudeatzaileak, bai zerbitzuak Internet bidez eskura jartzen dituzten informatikariak.
- Administrazio elektronikoaren plataformaren errendimendua sinplifikatzea eta hobetzea.
- Herritarrei eta enpresei, administrazio elektronikoari buruzko komunikazio gehiago eta prestakuntza handiagoa ematea.
- Euskarri teknika eta funtzionala areagotzea, bai zerbitzuen kudeatzaileei eta informatikariei (barnekoak), bai zerbitzu elektronikoak erabiltzen dituzten herritarrei eta enpresei (kanpokoak).
- Enpresen izapideak bereiztea, bakoitzaren lehentasunetan oinarrituz.
- Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronika sortzea.
- Administrazio elektronikoari buruzko araudia aldatzea.
- Elkarrengarritasuna areagotzea, herritarrei eta enpresei dokumentuak eskatu beharrik ez izateko.
- Herritarrek zerbitzu elektronikoekiko duten gogobetetzea eta eskaintza- eta eskaera-adierazle nagusiak etengabe neurtzea.

{57

Lehentasun horiei zuzenean erantzuten dieten ekimenetako asko beste ildo estrategiko batzuetan islatzen dira (Administrazio elektronikoaren plataforma, Araudiaren egokitzapena eta Interneteko presentzia).

Proiektuak:

Hauek dira zerbitzu elektronikoaren ildoak osatzen duten proiektuak:

- Zerbitzuen digitalizazio-plana diseinatzea.
- Administrazio elektronikoaren kudeaketa-eredua garatzea.
- Administrazio Elektronikoaren Komunikazio eta Prestakuntza Plana diseinatzea.
- Enpresen ataria sortzea.
- Kontratazio elektronika indartzeko plana egitea.
- Erantzukizun berrien ad hoc prestakuntza garatzea (e-Administrazioa eta zeharkako prozesuak).
- E-Administrazioarekin eta berrikuntzarekin lotutako zeharkako prestakuntza garatzea.



4.1.2. 2. ildo. Administrazio elektronikoaren plataforma

2004. urtean, Eusko Jaurlaritzaren administrazio elektronikoaren eredu berriaren baitan, e-*Administrazio*ako plataforma sortu zen (aurrerantzean **PLATEA**); zehazki, honela definitu zen: elementu korporatibo horizontalen gunea osatzen zuten modulu eta sistema komunak multzoa. Elementu horiek, hain zuzen, oinarri dira herritarrei eskaintzeko zerbitzuak digitalizatzeko.

Geroztik, oinarritzko osagai batzuk definitu eta eraiki dira, eta horiek oinarritzko plataforma dira administrazio elektronikoaren zerbitzuak emateko.

Administrazio-zerbitzuak modu telematikoan herritarren eskura jartzea da Eusko Jaurlaritzak herritarrentzat duen hobekuntza-alderdi nagusietako bat, hala ez baita bertara joan eta itxaroten egon behar. Testuinguru horretan, eta zerbitzu elektronikoak eskura jartzeari dagokionez asmo handiko helburuak ezarri diren epe labur hau kontuan hartuta (hiru urtetan 6 aldiz biderka daiteke zerbitzu elektronikoaren kopurua), funtsezkoa da administrazio elektronikoaren plataforma moderno, bizkor, erraz eta erabilera askokoa ezartzea, Eusko Jaurlaritzaren askotariko izapideak kanal elektronikoak erabiliz egiteko euskarria izango dena.

Helburuak:

Hauek dira BPPk Eusko Jaurlaritzaren administrazio elektronikoaren plataformaren eremuan lortu nahi dituen helburuak:

- **Erabilgarritasuna:** erabilgarritasun-mota hauek indartu behar dira:
 - Barnekoa (erabilera erraza Eusko Jaurlaritzaren erabiltzaileentzat).
 - Kanpoko (erabilera erraza herritarrentzat eta enpresentzat).
 - Teknologikoa (erraza garatzaileentzat eta informatikariek ezarriak).
- **Egonkortasuna:** produktu egonkorak eta erabilgarriak lortu behar dira (errendimendua, eskalagarritasuna, edukiera, eta 24 x 7 erabilgarritasuna urteko 365 egunetan).
- **Elkarreragingarritasuna.**
- **Segurtasuna.**
- **Zerbitzuen eskaintza:** kanpo-erakundeei JASOko (Jaurlaritzaren Sare Orokorreko) zerbitzuen eskuragarritasuna handitzea.
- **Prestakuntza eta komunikazioa:** barnekoa, kanpoko, hornitzaileentzat eta bezeroentzat.
- **Hobekuntza funtzionala:** beste funtzionaltasun batzuk.

- **Homogeneizazio / estandarizazio teknologikoa:** aplikazioei dagokienez.

Ikuspegia:

Laburbilduz, PLATEA eta plataforma horren bilakaera bultzatzeko ikuspegian honako printzipio hauek hartu behar dira kontuan:

- Zerbitzu malguaren filosofia izatea.
- Azpiegiturei errentagarritasuna ateratzea.
- Bilakaera teknologikoaren eta etengabeko hobekuntzaren estrategia hartzea, eta iraultza teknologikoa eta etena baztertzea.
- Geldi-geldi, aldatzen hastea, azpiegituretako bakoitzaren azpiosagarrientzat — merkatuan aukera bideragarriren bat dutenentzat — produktua lortzeko; aztertu beharreko aukeren artean daude software librearen munduko konponbideak.

Proiektuak:

Hauek dira Administrazio elektronikoaren plataformaren ildoak osatzen duten proiektuak:

- Administrazio elektronikoaren plataformaren bilakaera teknologikoa.
- Administrazio elektronikoaren plataformaren bilakaera funtzionala.
- Dokusi sistemaren bilakaera funtzionala.
- Dokusi sistemaren bilakaera teknikoa.
- Mekanismoen eta prozesuen garapena, paperaren ordezkari baliokide elektronikoak erabiltzeko.
- Prozesuen ezarpena, dokumentu elektronikoaren zaintza eta iraupena bermatzeko.
- Interneteko PLATEA plataformaren bilakaera.
- Finantza-erakundeekiko pasabideak.
- Herritarren arretarako Zuzenean plataformaren bilakaera.

4.1.3. 3. ildo. Araudiaren egokitzapena

Planaren esparruan aurreikusitako zerbitzu publikoen eskaintza eta eskaera nabarmen handitu dira; beraz, igoera horren ondorioz, araudia ere berritu egin behar da. Hau da, araudi berriak 11/2007 Legean ezarritako oinarriak garatzeko aukera eman behar du, eta horrez gain, beharrezko mekanismoak eman behar ditu, zerbitzu elektroniko modernoak, seguruak eta kalitatezkoak izateko.

Helburuak:


Hauek dira BPPk gai honetan lortu nahi dituen helburuak:

- Administrazio izapideetan bitarteko elektronikoaren erabileraren handitzea arauen bidez babestea, prestatzen ari diren Administrazio Elektronikoaren Dekretuaren bitartez.
- Administrazioen arteko lankidetzaren eta elkarlanean oinarritutako sustatzea.
- Administrazio Publikoarekin dituzten harremanetan, herritarrek dituzten eskubideak zorrotasunez bermatzea eta errespetatzea.

Ikuspegia:

Araudi-ikuspegiak honako oinarri hau izango du:

- Beste dekretu bat egitea, egun indarrean dagoena —hots, abenduaren 18ko 232/2007 Dekretua, administrazio-prozeduretan bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoen erabilera arautzen duena— ordezkatzeko. Ekimen zehatzak zabaltzea, araudi espezifikoaren zenbait eremu osatzeko. Adibidez, honako hauek aipa daitezke: dokumentuen fitxategi elektronikoa, edukiak argitaratzeko protokoloa, lankidetzaren hitzarmenen ereduak, edo funtzionarioen eta borondatezko ordezkarien erregistroa.





Beste alderdi batzuen artean, dekretu berriak honako hauek arautuko ditu: Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren egoitza elektronikoa; izapide elektronikoak egitean, herritarrak eta administrazioa identifikatzeko eta bera dela egiaztatzeko modua; komunikazio eta jakinarazpen elektronikoak; eta fitxategi, dokumentu eta espediente elektronikoak.

Proiektuak:

Hau da araudiaren egokitzapena deituriko ildoan osatzen duen proiektu bakarra:

- Administrazio elektronikoari buruzko araudiaren bilakaera.
 - 11/2007 Legearen xedapenetara egokitzeko Dekretuaren garapena.
 - Araudi-garapen osagarriak egitea.



4.1.4. 4. ildo. Interneteko presentzia

Internet da administrazioa herritarrekin lotzeko erabiltzen den kanal dinamikoena, eta etorkizun hurbilean, komunikazio-bide nagusia izango da. Aldaketa horretara egokitzeko, administrazioak bi bidetan egin behar du aurrera. Alde batetik, Interneteko presentzia-eredua aldatu, herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzu elektronikoen euskarri izateko; eta bestetik, baliabideak eskura jarri, sailetako egiturak berak zerbitzu horiek emateko behar den antolaketa izan dezan. BPPn aurreikusitako berrikuntzen xede nagusia da egoitza elektronikoa sortzea, izapideen eta zerbitzuen leihatila elektronikotzat; aldi berean, edukien irisgarritasuna eta erabilgarritasuna hobetuko da, 2.0 tresnak zabalduz eta blogetan nahiz sare sozialetan beste presentzia-eredu bat bultzatuz. Hala ere, ez dira ahaztu behar erakunde barruko alderdiak, adibidez: antolaketa-eredua berriro zehaztea eta beste Intranet bat jartzea, lankidetzaren euskarri izango dena.

Helburuak:

Hauek dira BPPk gai honetan lortu nahi dituen helburuak:

- Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa eratzea.
- Zerbitzu elektronikoen kudeaketarako protokolo bat ezartzea.
- Interneteko presentzia-ereduan bilakaera izatea, erabilgarritasunaren sinplifikazio-eta handitze-printzipioak oinarri hartuta.
- Tresna berriak abian jartzea, herritarrei beren erabilera-esperientziak hobetzeko edukiak emango dizkietenak.
- Beste antolaketa-egitura eta kudeaketa-eredu bat definitzea, eredu berri horretara egokituko dena.
- Intraneten beste eredu bat garatzea, funtzionaltasun zehatzak eta operatiboak dituen; horiek balio erantsia emango diote Eusko Jaurlaritzako langileei.
- Beste kudeaketa-protokolo bat ezartzea, Intraneten eredu berrira egokitua.

Ikuspegia:

Eusko Jaurlaritzak Interneten duen presentzia bultzatzeko, oinarrizko lau elementu hartu dira oinarri: egungo ereduaren hobekuntza, Web 2.0 sistemarako bilakaera, egoitza elektronikoa eta Intranet.

Egoitza elektronikoa herritarren arretarako Interneteko gune nagusia izango da, Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu elektronikoen kanalizatzailea; hain zuzen, egoitza elektronikoa hori eratzea da BPPren lehentasunezko proiektuetako bat. Proposatutako ikuspegian, egoitza berriaren barne- eta kanpo-erabiltzaileei euskarria indartzea aipatu da, bai eta kudeaketa-



Proiektuak:

Hauek dira Interneteko presentzia ildo estrategikoa osatzen duten proiektuak:

- Egoitza elektronikoa eratzea.
- Interneterako beste presentzia-eredu bat zehaztea eta zabaltzea.
- Intraneten beste bertsio bat diseinatzea eta zabaltzea.



4.1.5. 5. ildo. Herritarren arreta

Herritarren arretari dagokionez, BPPk duen erronka nagusia da herritarrei kalitatezko arreta ematea, dituzten premietara egokitua eta, batez ere, hurbilagoa. Horretarako, funtsezkoa da zerbitzuen eskaintza bakarra izatea, argia eta herritarrek uler dezaketena.

Horri dagokionez, hauek dira identifikatu diren gakoak, lan-ildo hau garatzeko euskarri direnak:

- Herritarrek dituzten premiak ezagutzea erraztea (**parte hartzeko bide berriak irekitzea**).
- **Beharrezko prestakuntza eta informazioa jasotzea**, herritarrek jaso nahi duten arretari dagokionez dituzten itxaropenak betetzeko eta gainditzeko.
- Herritarren **gogobetetzea neurtzeko metodokoak perfektionatzea**.
- Adierazleen sistema egiteko beharrezko **euskarriak** izatea.
- Egun aurrez aurre ematen diren zerbitzuak **beste kanal batzuetara zabaltzea** (telefonoa eta Internet).
- Beste administrazio batzuekin **lankidetzak-hitzarmenak** sinatzea, zerbitzuak herritarrei zabaltzeko (beste administrazioetako dokumentuak Zuzenean plataforman erregistratzea, beste administrazio batzuetan Eusko Jaurlaritzarentzako dokumentuak erregistratzeko aukera izatea, eta beste administrazio batzuetako izapideei buruzko informazioa ematea, besteak beste).
- **Sailen artean komunikazio-bide eraginkorragoak** ezartzea.
- Oro har, Zuzenean plataforma izatea administrazioa sartzeko lehenengo bidea eta bakarra.

{65

Helburuak:

BPPk gai honetan lortu nahi duen helburua da Eusko Jaurlaritzako Administrazioa herritarrengana hurbiltzea; hots:

- Herritarrei eskatzen zaizkien dokumentuak % 50 gutxitzea.
- Zerbitzuen multikanalitatea (hau da, kanal ugari izatea zerbitzu bera emateko) % 25 handitzea.
- Herritarren gogobetetzea hobetzea:
 - Zerbitzu-kartaren berri ematea.
 - Urtero, zerbitzu-karta hobetzea.
 - Sei hilean behin, herritarren itxaropenak eta gogobetetzea neurtzeko inkesta bat ad hoc egitea.
- Herritarrek Zuzenean zerbitzuari buruz duten ezagutza zabaltzea.



- Herritarrentzako komunikazioei eta kanpainei dagokienez, sailen eta herritarren arreta-zerbitzuen artean dagoen plangintza koordinatua areagotzea.

Ikuspegia:

Eremu honetan, BPPren asmo nagusia da herritarrei zerbitzuak ematea, haiek behin eta berriz leku batetik bestera ibili beharrik izan ez dezaten.

Herritarren premietara egokitutako arreta eskaintzeko modua egon behar da, haien eskaerak konpondu eta erantzun, “**ez itzuli bihar**” leloa aldarri hartuta; hau da, informazio-eskaerak eta izapideak aurrez aurrekoak ez diren beste kanal batzuen bidez egiteko **beste aukera batzuk eskaini** behar dira.

Asmo hori gauzatu ahal izateko, ezinbestekoa da kanal askoko zerbitzuen katalogo oso bat ematea, herritarrek eta enpresek egiaz dituzten premietara egokitua.

Bestalde, Herritarren Arreta Zerbitzuak mekanismo egokiak izan behar ditu, haren laguntza eskatzen duten herritarren edozein eskaera modu eraginkorrean kudeatu ahal izateko. Horretarako, beharrezkoa da egungo zerbitzua garatzea, hiru eremutan, zehazki:

1. Harreman-eredua hobetzea: egun, Eusko Jaurlaritzako administrazioaren sailekin eta barne-unitateekin den harreman-eredua berrikustea eta hobetzea, komunikazio arinagoa eta osoagoa izateko; horrela, baliabide-kudeaketa hobeto antolatuko da, eta barne-premiei ere hobeto erantzungo zaie.
2. Barne-kudeaketa hobetzea: Zuzenean plataformaren prozesu propioak berrikustea eta hobetzea, zerbitzuaren kalitatea eta efizientzia hobetzeko.
3. Hazkunde eraginkorra izatea: egun zerbitzua ematen zaion antolaketa-eremua berrikustea, Zuzenean plataformaren bidez arreta ematen zaien erakundeak eta organismoak areagotzeko, betiere efizientzia-printzipioak eta herritarrentzako zerbitzua aintzat hartuta.

3 printzipio horien baitan, herritarren arretarako lan-mahaian zehaztutako helburuak lortzeko ezinbestean landu behar diren proiektuak zehaztu dira.

Proiektuak:

Hauek dira Herritarren arreta ildoak osatzen duten proiektuak:

- Sailen eta Herritarren Arretarako Zuzendaritzaren arteko egungo harreman-eredua aldatzea.
- Komunikazio- eta kontzientziazio-kanpaina egitea, bai erakunde barruan, bai bertatik kanpo.



- Aldaketa kudeatzeko informazioa ematea, eta talentuaren kudeaketa bermatuko duen etengabeko prestakuntza.
- Herritarren arretarako prozesuak diseinatzea eta berdiseinatzea.
- Herritarren arretarako egungo ereduan Eusko Jaurlaritzaren beste erakunde batzuk sartzea.
- Enpresen arretarako leihatila bat jartzeak duen bideragarritasuna aztertzea.



gauzatzen Gobernuak parte hartzea lortu.

- **Lankidetza:** lankidetza-tresnen eta -metodoen bidez.

Proiektuak:

Hauek dira gardentasunaren eta parte-hartzearen ildoak osatzen duten proiektuak:

- Gardentasuna aurrekontuetan eta horien gauzapen-mailan.
- Gardentasuna kontratuetan eta esleipenetan.
- Gardentasuna Legegintzaldiko egutegian nahiz Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuetan.
- Gardentasuna Legebiltzarreko galdera-erantzunetan eta Arartekoak izapidetutako txostenetan.
- Sailek emandako informazioan gardentasuna aplikatzeko irizpideak zehaztea.
- Herritarrek parte hartzeko tresna baten sustapena, garrantzi publiko handiko proiektuetan.
- Irekia plataformaren bilakaera.
- Open Data plataformaren bilakaera.



4.1.7. 7. ildo. Administrazioen arteko lankidetza

Administrazioak egun aurre egin behar dion erronketako bat da elkarren artean lankidetzan aritzea herritarrentzako zerbitzua hobetzeko. Alde batetik, lortu nahi da herritarrek hainbat erakunderen artean noraezean ibili behar ez izatea, ez erakunde batek emandako dokumentuak beste erakunde batean aurkeztu behar dituelako, ez eskaerak eta idatziak hainbat administraziotan aurkeztu behar dituelako. Eta bestetik, erakunde publikoek zenbait arlotan duten eguneroko jarduera eta izaten dituzten arazoak antzekoak dira; beraz, administrazio-jardueraren efizientzia handitu daiteke, elkarlanaren eta lankidetzaren bidez.

Horri dagokionez, Berrikuntza Publikoaren Planaren xedea da Eusko Jaurlaritzak Euskadiko administrazioen lankidetza-foro batean parte har dezan bultzatzea, administrazioen arteko elkarerreragingarritasunean eta lankidetzan aurrera egiteko; horrela, herritarrei ematen zaien zerbitzua hobetu nahi da, eta, aldi berean, hainbat erakunde-mailatako egiturak arrazionalizatu (horri esker, kostua aurreztuko da).

Helburuak:

Hauek dira BPPk gai honetan lortu nahi dituen helburuak:

- Datuak kontsultatzeko zerbitzua abian jartzea; horrela, administrazio-izapideetan **eskatzen diren dokumentuen % 20 kenduko da.**
- Euskadiko administrazioetan **% 300 baino gehiago aurrezte**a, eraginkortasunerako eta eraldaketa teknologikorako proiektuetan egindako inbertsioari dagokionez.

Ikuspegia:

Ildo estrategiko honi eman zaion ikuspegia da **antolaketa-tresna** baten sorrera sustatzea, Euskadiko administrazio publikoen arteko lankidetza koordinatzeko aukera emango duena; horren bidez, zenbait ekimen abian jarri nahi dira, hiru eremu nagusitan lan egiteko aukera emango dutenak:

- Administrazioen arteko **datu-trukaketan** aurrera egitea, administrazio-izapideetan herritarrei dokumentuak paperezko euskarrian eskatu beharrik ez izateko.
- **Administrazioen arteko izapidetze-ekimenak** abian jartzea, horrek administrazioen barne-lana antolatze
- Hainbat erakunderen arteko sinergiak baliatzea, oro har aurrezteko eta **efizientzia hobetzeko** aukera emango baitu; bai, behintzat, hasieran, teknologien eremuan.

Segidan dagoen diagraman, modu grafikoan ikus daitezke zer ekimen aurreikusi diren eta horiek nola antolatzen diren aipatutako antolaketa-tresnaren inguruan.



{71

Proiektuak:

Hauek dira Administrazioen arteko lankidetzaren ildoak osatzen duten proiektuak:

- Euskadiko administrazio publikoen arteko lankidetzarako antolaketa-tresna bat sortzea.
- Konponbideak eta zerbitzuak prestatzea, beste administrazioek erabiltzeko.
- Elkarreragingarritasunerako nodoa sortzea.
- Prestakuntza-ekimen bateratuak zabaltzea.
- IT kostuak gutxitzeko administrazioen arteko azterketak egitea.
- Administrazioen arteko izapideetarako proiektu pilotua egitea.
- Herritarren arretari eta dokumentuak erregistratzeari dagokionez lankidetzan aritzea.



4.1.8. 8. ildo. Berrikuntza eta ezagutzaren kudeaketa

Administrazioak nahiz gainerako erakundeek aurre egin beharreko erronketako bat da egungoa bezain aldakorra den egoera batean egokitze gaitasuna izatea, beti ahalik eta zerbitzu onena emateko. Horretarako, beharrezkoa da informazioa erakundeko kide guztiek partekatzen duten egoeretan lan egitea; izan ere, horrela lortuko da berrikuntza modu naturalean sortzea, diziplina askotako taldeen parte-hartzeari esker.

Horren haritik, Berrikuntza Publikoaren Planaren asmoa da Eusko Jaurlaritzan ingurune bat sustatzea, administrazioaren baitan berrikuntza eta sormena indartzeko, horrela e-Administrazioa eta herritarren orientazioa sustatuko baita. Horrela, Administrazioak etengabeko hobekuntzaren bidean jarraitzeko asmoa bermatu nahi da, berrikuntza eta sormena administrazioaren parte izan daitezen, kudeaketa-elementu iraunkortzat.

Helburuak:

Hauek dira BPPk gai honetan lortu nahi dituen helburuak:

- **Langileen % 50ek** berrikuntza-prozesuetan edo -ekimenetan **esku har dezaten lortzea**. Hau da, jarduera komunitateetan, berrikuntza-lantaldeetan eta sare profesionaletan parte hartzea.
- Herritarrenganako zerbitzua hobetuko duten **30 konponbide sortzea**, izango duten eragin handia dela-eta aitortuko direnak.

Ikuspegia:

Ildo estrategiko honi eman zaion ikuspegia da **berrikuntza-ingurune** baten sorrera sustatzea, lau eremu nagusitan lan egiteko aukera emango duten ekimenak abian jarritz; zehazki, hauek dira lau eremu horiek:

- Ingurune batean **ezagutzak eta esperientziak partekatzea**, berrikuntza-kultura sustatzeko espazio bat (sare profesional bat) sortuz.
- Lan egitea sare profesionalaren baitan **berrikuntza egonkorra** lortzeko, praktika-komunitateak sortuz, eta, era berean, berrikuntza-lantaldeen bidez, **aldizkako berrikuntza** lortzeko.
- **Berrikuntza-kultura** sortzea; horretarako, pertsonei aukera emango zaie sare profesional horretan sartzeko, libreki eta pixkanaka.

Praktika-komunitateak (PK) helburu bera duten lan-talde iraunkorrak dira (berrikuntza egonkorra), eta honako ezaugarri hauek dituzte: elkarrenganako konpromisoa (kide bakoitzak bere ezagutza partekatzen du), enpresa bateratua (kide guztiek helburu berak eta estali beharreko premia komunak dituzte), eta sail partekatua (kideak ohiturak eta gauzak

egiteko moduak barneratuz joaten dira, praktika-komunitateak kohesionatuta eta etengabeko dinamismoan edukitzeko balio dutenak).

Bestalde, berrikuntza-lantaldeak (BL), ad hoc lan-taldeak dira, profesional-multzo heterogeneo batez osatuak eta arazo jakin batzuk konpontzeko sortuak (aldizkako berrikuntza); hau da, proposatutako konponbidea ezarri eta berehala, berriro desagertuko dira.

Hurrengo irudian, modu grafikoan ikus daiteke berrikuntza-ingurunea, bai eta hori osatzen duten hainbat elementu ere.



{73

Proiektuak:

Hauek dira Berrikuntza eta ezagutzaren kudeaketa ildoan osatzen duten proiektuak:

- Eusko Jaurlaritzaren baitan, sare profesional bat definitzea eta abian jartzea.
- Praktika-komunitateak (PK) sortzea.
- Berrikuntza-lantaldeak (BL) sortzea.

4.1.9. 9. ildo. Politika publikoen ebaluazioa.

Politika publikoen kudeaketa-prozesuaren zati garrantzitsua da politika horien ebaluazioa, erabakiak hartzen eta hasiera batean zehaztutako helburuak betetzen edo hartutako erabakiak birplanteatzen laguntzen duena. Horrez gain, ordea, kontuak emateko prozesua sendotzeko aukera ematen du, adierazleak eta egindako ebaluazio-azterketen emaitzak argitaratuz.

Politika publikoak ebaluatzeko estrategia jarritz, ekintza politikoa hobetu eta horrek gizartean duen legitimitatea handitzen da; izan ere, politika publikoen, gobernu-planen eta -programen, eta ekintza esanguratsuen kalitatea, eraginkortasuna eta efizientzia aztertzeko aukera ematen du.

Helburuak:

Hauek dira BPPk gai honetan lortu nahi dituen helburuak:

- Politika publikoen ebaluazioan, Eusko Jaurlaritzaren antolaketa-egitura guztia kontzientziazatzea eta inplikatzeko, administrazioko hainbat mailatan lidergoa indartuz, lankidetzatresnak erabiliz, eta sektore-sareak nahiz ezagutza-tresnak dinamizatuz.
- Politika publiko egonkorak nahiz askotarikoak ebaluatzeko prestakuntza-estrategia bat diseinatzea, hainbat ezaugarriaren arabera definitutako moduluez osatuta; besteak beste, konplexutasunaren, antolaketa-esparruaren eta aldizkako politikekiko espezifikotasunaren arabera.
- Laguntza instituzionala edo tutoretza emateko mekanismoak izatea estrategikotzat hartzen diren ebaluazioetarako edo Eusko Jaurlaritzan nahiz horren erakunde autonomiadunetan interes berezia duten ebaluazioetarako, ebaluazio-eskaerak sustatze aldera; horretarako, hautaketa-irizpideak eta baliatzen diren baliabide ekonomikoak nahiz giza baliabideak identifikatu behar dira.

Ikuspegia:

IIldo honi eman zaion ikuspegia da ebaluazio-kultura sustatzea, honako hauen bitartez:

- **Sentsibilizazioa eta trebakuntza.** Erakundea kontzientziazatzea eta inplikatzeko, eta aldi berean, prestakuntza-aukerak ematea. Sailetakoko arduradunentzat nahiz teknikari eta kudeatzaileentzat da, eta lidergoa indartzea dute xede.
- **Metodologia eta baliabideak.** Ezagutzaren eta datu-kudeaketaren ingurune bat sortzea eta esparru metodologiko bat ezartzea, ebaluazio-jarduera egiteko baliabideak, tresnak eta teknikak emango dituen, sektore-politiken espezifikotasunak kontuan hartuta.



- **Politika publikoen ebaluazioak gauzatzea plangintza estrategikoaren eta aurrekontuaren eremuetan.** Gobernuaren politika estrategikoetan ebaluazioa sustatzea eta ebaluazio-praktika egitea ditu xede.
- **Komunikazioa eta hedapena:** ebaluazioari egiten dio erreferentzia, prozesutzat hartuta, bai eta horrek ematen dituen emaitzei ere. Erakunde barruan nahiz kanpoan komunikatu behar da, arduradun publikoek ebaluazio-kultura bat garatzeko bitartekotzat erabiltzea sustatzeko.

Proiektuak:

Hauek dira Politika publikoen ebaluazioaren ildoak osatzen duten proiektuak:

- Politika publikoen ebaluazioaz sentsibilizatzeko eta erakunde barruan zabaltzeko proiektua.
- Politika publikoen ebaluaziorako prestakuntza-proiektua.
- Evalua sarea dinamizatzeko proiektua.
- Politika publikoen ebaluaziorako atariaren eta behatokiaren proiektua
- Politika publikoen ebaluaziorako metodologia-esparru komunaren proiektua.
- Politika publikoen ebaluaziorako datuak ezagutzeko eta kudeatzeko proiektua.
- Ebaluazioan laguntzeko proiektu korporatiboa.
- Ebaluazioa plangintza estrategikoarekin nahiz plangintza ekonomiko eta aurrekontu-plangintzarekin lotzeko proiektua.
- Politika publikoen ebaluazioak zabaltzeko proiektua.
- Administrazioen arteko lankidetzaproiektua, politika publikoen ebaluazioari dagokionez.

{75



4.1.10. 10. ildo. Kudeaketa-bikaintasuna

Arlo honetan proposatu den erronka nagusia da **bikaintasunerako sustapen-esparru orokor bat sortzea**, bide horri ekin nahi dioten sail guztientzat **erreferente izango dena**. Horretarako, esparru hori eta aurrerago aipatuko ditugun gainerako ekimenak garatzeko kontuan hartu behar diren gakoak identifikatu dira. Hauek dira, beraz, gako horiek:

- Esparru orokorrak honelakoa izan behar du:
 - Borondatezkoa.
 - Malgua, kudeaketa ez zailtzeko.
 - Sailen eskakizunetara egokitua, abian jarri nahi diren eremuen arabera.
 - Eta dimentsio askokoa: politika, arauak, prozedurak, antolaketa-egitura, eta tresna metodologikoak nahiz teknologikoak.
- Esparrua ezartzearekin batera, kultura-aldaketa, komunikazioa, prestakuntza eta euskarria landu behar dira.
- Jarduera egokien multzoak erabiltzeko aukera izan behar da, kudeaketa hobetzen laguntzeko metodotzat.

Helburuak:

Hauek dira BPPk gai honetan lortu nahi dituen helburuak:

- Sustapen-esparru orokor bat zehaztea, kudeaketa-bikaintasuna lortzeko.
- Esparrua erabiltzen ari diren zerbitzuen kopurua (egungo egoeraren azterketa, helburua zenbatzeko).

Ikuspegia:

Ildo estrategiko honi eman zaion ikuspegia Eusko Jaurlaritzaren antolaketa guztian bikaintasuna sustatzea da; horretarako, erreferentzia-esparru orokor bat erabiliko da, haren jardueran bikaintasuna sartzeko. Erreferentzia-esparru hori erakunde-barneko ikuspegitik nahiz herritarrekin dituen harremanen ikuspegitik ulertu behar da.

Esparru hori zehazteko, ezinbestekoa da egungo egoera aztertzea, horri esker gai honekin lotuta dauden ekimen nagusiak jaso ahal izango baitira. Garrantzitsua da eremu horretan esperientzia duten arloak identifikatzea; izan ere, arlo horiek erreferentziazat balioko dute eta, oinarri horren gainean, sustapen-esparru orokor bat eraikitzeko aukera emango dute, bikaintasuna lortzeko bidean.

Esparru horrek malgua izan behar du, arlo bakoitzeko beharretara egokitu daitekeena; beraz, beharrezkoa izango da ekintza-plan pertsonalizatuak egitea, arlo-motaren arabera. Horri dagokionez, bi mota bereizi dira:

- Estrategikoak: horien zeharkako ezaugarria dela eta, esparru orokorra hedatzeko lehentasunezko zat hartu diren arloak dira; honako hauek, zehazki:
 - Kudeaketa ekonomikoa
 - Langile-kudeaketa
 - Kudeaketa juridikoa
 - Kontratazioa
- Gainerakoak: gainerako arloak hedapenerako lehentasunezko zat hartzen ez direnak dira; baina, era berean, nor bere gain har dezakeen ekintza-plan orokor bat egingo da.

Ikuspegi honen bidez, landu behar diren proiektuak identifikatu dira; hain zuzen, hurrengo atalean zehaztu dira.

Proiektuak:

Hauek dira Kudeaketa-bikaintasunaren ildoak osatzen duten proiektuak:

- Kudeaketa-bikaintasunaren egungo egoeraren azterketa.
- Bikaintasunerako sustapen-esparru orokorraren definizioa.
- Kudeaketa-bikaintasunerako sustapen-esparru orokorra abian jartzeko ekintza-plana.
- Administrazio-kargak gutxitzeko plana.

{77



4.1.11. 11. ildo. Antolaketa eta giza baliabideak

Administrazioek aurre egin beharreko erronketako bat da e-Administrazioaren erabilera bultzatzea, bai herritarren aldetik, bai administrazioan lan egiten duten funtzionarioen aldetik. Horri dagokionez, bereziki garrantzitsua da langile publikoak indartzea administrazioaren kapital-zatitzat eta administrazioaren eraldaketa-prozesuko funtsezko ardatz gisa.

Horrez gain, administrazio osoaren zeharkako prozesuak daude (kalitatea, antolaketa eta beste batzuk); hain zuzen, ezaugarri hori dela eta, zenbaitetan, Eusko Jaurlaritzaren hainbat arlotan ez da egoten helburu horiek lortzeaz arduratzen den inor.

Hori dela eta, Berrikuntza Publikoaren Planaren asmoa da erakunde efikaz eta eraginkorra bultzatzea, e-Administrazioaren euskarri izan dadin; beharrezko prestakuntza izango du, bai eta berrikuntzaren eta parte-hartzearen kultura-esparruan zerbitzua emateko behar diren malgutasuna eta balio-aniztasuna ere.

Helburuak:

Hauek dira BPPk gai honetan lortu nahi dituen helburuak:


- Antolaketa-diseinuaren irizpide orokorrak eta Administrazioarekiko metodologia komunak ezartzea.
- Zuzendaritza-kide publiko profesionalaren irudia garatzea: 2011n, zuzendaritza-postuen eta zuzendaritza-kide publikoaren irudiarekin duen loturaren % 100eko ebaluazioa izatea.
- Gobernu osoari zeharkakoak zaizkion funtzioak, administrazio elektronikorako eta berrikuntzarako beharrezko direnak, behar bezala gauzatzen direla bermatzea: zeharkako 5 prozesu kritiko ezartzeko diseinua eta plangintza egitea.
